



GOBERNANTZA,
ADMINISTRATIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA
Erakunde Harremanetarako
Sailburuordetza
Gobernu Irekiaren eta
Gobernu Onaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL
Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Relaciones
Institucionales
Dirección de Gobierno Abierto y
Buen Gobierno

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARDENTASUNAREN LEGEAREN
AURREPROIEKTUARI BURUZKO BIGARREN MEMORIA LABURRA, GOBERNU
KONTSEILURAKO

(DNCG_LEY_2294/22_04)

Izapidetze-memoria honek, Euskal Autonomia Erkidegoko Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen (aurrerantzean, XOEPL) 10.2 artikuluan aipatzen den amaiera-memoria gisa, 2023ko azaroaren 22ko «Euskadiko Gardentasunari buruzko Legearen aurreproiektuaren Gobernu Kontseilurako memoria laburra» ordeztu behar du, prozedura-iter osoaren balorazio laburra egiteko.

XEDEA ETA HELBURUA

2023ko azaroaren 28an, XII. legegintzaldiko Gobernu Kontseiluak Euskadiko Gardentasunaren Lege-proiektua onartu zuen.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osoko bilkurak (aurrerantzean, EABJ), 2023ko azaroaren 16ko bilkuran, aho batez eman du 176/2023 zenbakiko irizpena –Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: DNCG_LEY_2294/22_04)–.

Era berean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 14/23 Irizpena –Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzkoa– eman du 2023ko urriaren 27an.

Alde batetik, memoria honek osatu egiten ditu izapidetze-faseetan emandako memoriak –aurreko faseetan Eusko Legebiltzarrerara bidali direnak–, eta, bestetik, emandako azken irizpen horietan jasotako gogoetak kontuan hartuta, memoria honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren Lege Aurreproiektua egiteko prozesuaren berri ematea da. Dokumentu honetan aurreproiektua antolatze modua, izapideei buruzko ikuspegi orokorra, kontsultetan eta txostenetan eginiko oharra eta ohar horiek kontuan hartzeko arrazoiak azaltzea da helburua. Jomuga orokorra behin betiko testua ulerterrazagoa izaten laguntzea da. Gero testu hori Gobernu Kontseiluari bidaliko diogu, eztabaidatu eta onar dezan, memoria honekin batera.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

irekia@euskadi.eus



Goian adierazitako datan onartu zen Euskadiko Gardentasun Legearen proiektua, eta, ondorioz, urte bereko azaroaren 30ean bidali zen Legebiltzarrera. Bertan izapidetu zen, Ganberaren Erregelamenduan horrelako ekimenetarako aurreikusitako izapideen bidez. Legebiltzarrean izapidetzen izan ziren zenbait eragile eta aditu, eta 2024ko otsailaren 19a baino lehen 15 eguneko epea ireki zen zuzenketak aurkezteko.

Euskadiko Gardentasunaren Lege Proiektuarekin jarraitutako legebiltzarreko izapide horiek indargabetu egin ziren 2024ko otsailaren 27an, Lehendakariaren otsailaren 26ko 7/2024 Dekretua argitaratu eta indarrean jarri zenean. Dekretu horren bidez, Eusko Legebiltzarra desegin zen eta hauteskundeak deitu ziren 2024ko apirilaren 21erako. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 130. artikulua edukitik argi geratzen da ezen, behin deseginda edo agintaldiak aurrera egin ahala agintaldia amaituta, Legebiltzarreko izapidetzeara iraungitzen direla legegintza-ekimen guztiak, Diputazio Iraunkorrak ezagutu behar dituenak edo luzatutakoak izan ezik (hala nola legegintzako herri-ekimen baten ondoriozko lege-proposamenak, zeinak haren azken tartekiaren arabera luzatzen baitira, Legegintzako Herri Ekimena arautzen duen ekainaren 30eko 10/2016 Legearen 12. artikulua arabera). Eta, beraz, artikulua horren arabera, iraungi egin ziren Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. eta 18.a) artikuluek aitortzen duten legegintza-ekimeneko ahala baliatuz Eusko Jaurlaritzak bidaliko zituen lege-proiektu guztiak, eta horien artean zegoen hau.

Hala ere, jakina denez, Legebiltzarraren iraungitze hori ez da transmititzen jada egindako administrazio-izapideetara. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak finkatuta duen bezala, eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren LGAKZ 51/2017, 56/2017, 61/2017, 77/2017 eta 110/2017 lege-iritzietan berretsita, *«zalantzarik gabe, Legebiltzarrean, Eusko Jaurlaritza berria, legegintza-ekimenerako eskubidea duen aldetik, erabat gai da dagokion hauteskunde-prozeduratik ateratzen den ganbera berriaren aurrean aurreko kabineteak onartutako ekimenak bere horretan errepikatzeko, ekimenaren iraungipena ez baitzaio eskualdatzen Gobernuak hura aurkezteko duen eskubideari»*.

Hori dela eta, aipatutako aurrekariekin eta goian aipatutako lege-iritzietan finkatutako doktrinarekin bat etorritik, eta horien arabera igorritako lege-proiektuak Eusko Legebiltzarrean onartu izanak baliozkotuta, Sail honen asmoa da berriro planteatzea dagokion testu artikulatua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, izapidetzeko, kasu honetan, lege-proiektu gisa.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espediente honetan egindako izapide guztien baliozkotasuna eta indarraldia berretsi ondoren, uste dugu espedientearen Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokeela, lege-proiektu hau onar dezan eta Eusko Legebiltzarrera igor dezan.

AURREKARIAK

XII. legegintzaldiko 2020-2024 Gobernu Programak honako hau biltzen du 148. konpromisoan: «Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legea onestea, administrazioak herritarren aurrean gardentasunez jokatu duela bermatzeko, herritarrek gai publikoetan parte-hartzea sustatzeko eta gobernu-programa betez garatzen diren ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea ahalbidetzeko».

2020ko azaroaren 10eko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, XII. legegintzaldirako Legegintza Programa onetsi zen; Jaurlaritzaren legegintzako esku-hartzearen esparruan plangintza-printzipioa praktikan jartzeko baliabidetzat jotzen da hura, helburuak ezartzea, lehentasunak zehaztea eta arauak sortzeko bitartekoak zehaztea dakarrelako berekin.

Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak 2024ko otsailaren 26an sinatu eta hurrengo eguneko EHAA-n argitaratu ondoren Legebiltzarra desegin eta urte bereko apirilaren 21eko hauteskundeetarako deialdia egiten duen dekretua. Honen ondorioz, 2024ko otsailaren 27an indargabetu zen Euskadiko Gardentasunaren Legearen proiektua.

XIII. legegintzaldiko 2024-2028 Gobernu Programak, 148. konpromisoan, berriz ere jasotzen du 1. ekimena: «Euskadiko gardentasunari buruzko lege bat bultzatzea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea errazteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko».

Gobernu Kontseiluak, 2024ko urriaren 1ean egindako bilkuran, besteak beste, XIII. Legegintzaldiko Legegintza Programaren Erabakia hartu zuen, eta 2025erako aurreikusi zuen Gobernu Kontseiluak «Euskadiko Gardentasunaren Legearen aurreproiektua» onartzea. Aurreproiektu hori, era berean, 2025eko Urteko Arau Planaren 5.1 apartatuan sartzen da.

IZAPIDETZEA ETA ERATZE-PROZEDURA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren Legearen aurreproiektua aurretiazko kontsulta, entzunaldi, jendaurreko informazio eta administrazioei kontsulta egiteko nahitaezko izapideen mende jarri da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legean xedatutakoaren arabera.

Gobernu Irekiaren zuzendariaren 2022ko apirilaren 21eko Ebazpenaren bidez, kontsulta publikoa egin zen gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko xedapen orokor bat –lege-mailakoa– egin aurretik.

Horri egindako ekarpen hauek jaso dira:

- Asier Amezaga Albizu jaunak 2022ko apirilaren 26an egindako ekarpenak, aurretiazko kontsultaren eta jendaurreko informazioaren izapidean.
 - o Asier Amezaga Albizu jaunak egindako ekarpenen eranskina: Herritarren parte-hartzea arautzeko Bartzelonako Udalaren erregelamendua
 - o Asier Amezaga Albizu jaunak egindako ekarpenen eranskina: Madrilgo Udalaren lankidetzako publiko-pribatuko ordenantza.
- Ricardo Antón Troyas jaunak 2022ko apirilaren 26an egindako ekarpenak, aurretiazko kontsultaren eta jendaurreko informazioaren izapidean.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko abenduaren 7ko Aginduaren bidez, gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proiektua eratze prozesua abiarazten da.

2022ko abenduaren 20an, Erakunde Harremanetarako sailburuordearen dosierra eman zen. Txosten horretan, Gardentasunaren eta Herritarren Parte-hartzearen Legearen aurreproiektuaren eraginpean dauden xedapenen inpaktu- eta emaitza-ebaluazioak eta bestelakoak jasotzen dira.

Arau-inpaktuaren analisiari buruzko 2023ko uztailaren 18ko memoria egin ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2023ko uztailaren 18ko Agindua eman zuen. Horren bidez, aldeztu aurretik onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren Legearen aurreproiektua, eta, horren bidez, jendaurreko informazioaren izapidea hasi zen.

Izapidetze-fasean honako ekarpen hauek jaso ziren:

1. Ofizioa, 2023ko uztailaren 26koa, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena, dekretu-proiektuari ez zaiola alegaziorik aurkeztu jakinaraztekoa.
2. Ohar teknikoa, 2023ko uztailaren 26koa, EUDELena.
3. Antolamendu-txostena, 2023ko uztailaren 31koa, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarena.
4. Ofizioa, 2023ko uztailaren 31koa, Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzarena, arau-proiektuari ez diotela alegaziorik aurkeztu jakinaraztekoa.
5. Txostena, 2023ko abuztuaren 3koa, proposamena egin duen sailaren aholkularitza juridikoarena.
6. Txostena, 2023ko abuztuaren 4koa, Emakunderena.
7. Ofizioa, 2023ko abuztuaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena, arau-proiektuari ez diotela alegaziorik aurkeztu jakinaraztekoa.
8. Alegazioak, 2023ko abuztuaren 8koak, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarenak.
9. Irekia gobernu irekiaren plataforman 2023ko uztailaren 19tik abuztuaren 19ra bitartean jasotako ekarpenak.
10. Txostena, 2023ko abuztuaren 30ekoa, Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena.
11. Alegazioak, 2023ko irailaren 12koak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarenak.
12. Txostena, 2023ko irailaren 13koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarena.
13. Alegazioak, 2023ko irailaren 14koak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak.
14. Ofizioa, 2023ko irailaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena, dekretu-proiektuari alegaziorik egiten ez diola adierazten duena.
15. Alegazioak, 2023ko irailaren 20koak, Lan eta Enplegu Sailarenak.

Jasotako alegazioak eta txostenak aztertu ondoren, testu artikuludun berri bat idatzi zen 2023ko irailaren 25ean. Gainera, jasotako txostenen balorazio-memoria idatzi da, bai eta 2023ko irailaren 26ko memoria ekonomikoa ere, derrigorrezko funtsezko txostenak eta irizpenak eskatu aurretik. Hona hemen jasotako edo igorritako erantzunak:

1. Ofizioa, 2023ko irailaren 26koa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak ezin duela eskatutako txostena eman jakinaraztekoa.
2. Txostena, 2023ko irailaren 27koa, Lehiaren Euskal Agintaritzarena
3. Errekerimendua, 2023ko irailaren 28koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena (KEB), dokumentazio gehigarria aurkezteko.
4. Ofizioa, 2023ko urriaren 4koa, Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusiarena, eskatutako txostena ez dela eman behar jakinaraztekoa.
5. Oharra, 2023ko urriaren 6koa, Gobernu Irekiaren zuzendariarena, lege-aurreproiektuaren 70. artikulua aldatzeari buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren errekerimenduaren erantzun gisa.
6. Ziurtagiria, 2023ko urriaren 10ekoa, Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluko zuzendariarena.
7. Txostena, 2023ko urriaren 10ekoa, ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena.
8. Txostena, 2023ko urriaren 11koa, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena.

2023ko urriaren 11ko Aginduaren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren Legearen Aurreproiektuari buruzko irizpena emateko eskatu zion Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, eta, horrekin batera, proposatutako testu artikuludun berrikusia eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak idatzitako balorazio-memoria –jendaurreko informazioaren izapidean jasotako txostenei eta egindako alegazioei buruzkoa– eransteko irizpen horri.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena prestatzeko epean, urriaren 26an Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena jaso zen, eta urriaren 30ean, berriz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena. Dokumentu horiek Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari eta Eusko Legebiltzarrari bidali zitzaizkion, II. fasean igorritakoaz gain.

Azaroaren 17an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 176/2023 Irizpena –Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa (Erref.: DNCG_LEY_2294/22_04)– jaso zen.

Memoria labur honetan, lege-proiektuaren testua behin betiko idazteko aurkeztutako alderdien azterketa xehatua egiten da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 24. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Lege honen xedea honako hau da: lehenik, jarduera publikoaren gardentasuna eta publizitatea arautzea eta bermatzea, bai eta herritarrek informazio publikorako irispidea izateko duten eskubidea ere; bigarrenik, interes publikoko erabakiak hartzeko eta diseinatzeko zereginean herritarren parte-hartzea bultzatzeko oinarrizko esparrua taxutzea; lege honetan ezarritako

betebehar eta obligazioak ez betetzeagatiko erantzukizunen eta bermeen araubidea ezartzea; eta, azkenik, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independenteari –lege honen V. tituluan jasota– esleitzea informatzaileak babesteko eginkizuna (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legean dago ezarri eginkizun hori).

Horri dagokionez, benetako gardentasun-maila handiak egotea lagungarria da herritarrek gai publikoetan hobeki eta modu oparoagoan parte har dezaten, eta, azken batean, orduan espero dezakegu demokraziaren eraldatze irrikatua eta, azkenean, politika publikoen efikazian eta efizientzian ondorio positiboak izatea.

Gardentasunak bi alderdi ditu:

- Jarduera publikoaren publizitate aktiboa.
- Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea.

Gaiari buruzko oinarrizko erregulazioan funtsatuta (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa), aurreproiektu honetan publizitate aktiboko betebehar handiagoak txertatzen ditugu, eta betebehar horiek ezagutzea garrantzitsua da EAEko sektore publiko osoaren jardueraren gardentasuna bermatzeko, bereziki, herritarrek EAEko sektore publikoaren jarduera publikoarekin lankidetzan aritzeari eta haren funtzionamendu eta kontrolari dagokienez, hauek ezagutzeko: hartutako erabakiak; erabakiak hartzeko modua; zerbitzuak nola antolatzen diren; jardueren arduradunak nortzuk diren; eta funts publikoen erabilerarekin lotutako guztia. Arreta berezia ematen zaio irisgarritasun unibertsalari eta informazioa berrerabiltzeko aukerari.

Informazio publikorako irispidea izateko eskubideari dagokionez, haren nagusitasuna ezartzen da, eta, beraz, ezarritako irispide-mugak modu murriztailean aplikatu behar dira, talka-eskubideak haztatuta aldeztu aurretik, interes publikoaren eta babestutako interesen arabera.

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza sortzen da, berme-organo gisa, eta hari erreklamazioak jarri ahalko zaizkio (aukerakoak izango dira erreklamazio horiek eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu aurretik aurkeztekoak), interesdunari informaziorako irispidea ukatzen zaionean edo eman dioten informazioarekin ados ez dagoenean. Agintaritza horrek eskumena izango du bere ebazpenetan agindutakoa ez betetzeagatik dagokion zehapen-prozedura hasteko eskatzeko. Nabarmentzekoa da bitartekaritza-prozedura bat ezar daitekeela, erreklamaziogileak, eragindako administrazioak eta, hala badagokio, prozeduran agertutako hirugarrenek onartu beharreko akordioak lortzeko, betiere Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak hala berresten badu.

Lege-aurreproiektuak gardentasunaren arloko arau-hausteengatiko zehapen-araubide bat ezartzen du.

Gardentasunaren arlo horretan, bereziki esanguratsua da legeintzaldi bakoitzean Gobernu Programa argitaratzeko betebeharra dagoela, Jaurlaritzak herritarrekin duten konpromisoaren eta erantzukizunaren froga gisa, eta informazio horren bertsio publikoak emateko betebeharra izango duela ere ezartzen du, herritarrek eskuragarri izan ditzaten. Era berean, kontuak emateko oso garrantzitsuak diren urteko adierazleak argitaratzeko betebeharrak ezartzen dira; hona

hemen adierazle horietako zenbaitzuk: artatutako zerbitzu publikoen kostua, enplegu publikoa osatzen duten giza baliabideak, lortutako gizarte-ongizateko helburu nagusiak, inbertsio publikoen efizientzia, eta hartzen diren etorkizuneko konpromiso nagusiak; datuek formatu irekietan jarrita egon behar dute, horiek aztertu eta berrerabiltzeko aukera egon dadin.

Informazio publikorako irispidea izateko eskubideak lotura estua du herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidearekin. Horrela, bada, oso interesgarria da aurreproiektuan jasotako erregulazioa, herritarrei aktiboki entzuteko prozedurei, kanalei, erakunde-organoei eta tresnei edo bitartekoei buruzkoa, politika publikoak diseinatu, gauzatu eta hobeto ebaluatzeko aukera emango duten premiak, erronkak eta aukerak identifikatzeko ez ezik, balio publiko partekatua sortzeko orduan herritarrekin sinergiak sortzeko ere bai; izan ere, arazoan izaerak eta konplexutasunak erakundeen esku-hartzea ez ezik, herritarrekiko lankidetzaren ere eskatzen dute, horiei aurre egiten laguntzeko, eta, gainera, horien ekarpena aitortu egin behar da.

Esparru horretan, bereziki interesgarria da interes-taldearen erregistroa eta herritarren parte-hartzearen eta lankidetzaren erregistroa aipatzea. Horien medioz, identifikazio publikoa errazagoa izango da, eta horiek autonomia-erikidegoko sektore publikoaren aurrean gauzatzen duten jardueraren gardentasuna eta kontrola bermatuko da, zuzeneko edo zeharkako eragina duten jardueretan.

Halaber, lehendabizikoz arautzen da herritarrek duten eskubidea beren eskubide eta interes legitimoen, kolektiboaren, bazkideen edo ordezkatzeko dituztenen eskubide eta interes legitimoen eragiten dieten gaien buruzko erregelamendu-ekimenak sustatzea, kanpoan utzita bai legeei erreserbatutako gaiak bai legegintzako herri-ekimenetik kanpo geratzen diren gaiak (horien prozedura erregelamendu bidez garatuko da).

Azkenik, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak sortzen dela nabarmendu behar da; nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa ematen zaio, eta independentzia osoz jardungo du administrazio publikoen eginkizunetan eta enpresa- edo merkataritza-interesetan, objektibotasunez, independentziaz, inpartzialtasunez, profesionaltasunez eta ordenamendu juridikoaren mende.

Gardenaren eginkizunak honako hauetara mugatuta egongo dira:

- Alde batetik, gardentasunaren eremua, bai publizitate aktiboko betebeharre dagokienez, horien gaineko ebazpenak eman baititzake nola ez-betetzea eteteko hala dagozkion diziplina-jarduketak hasteko hartu beharreko neurriak ezartzeko, bai informazio publikorako irispidea izateko eskubidea erabiltzeko dagokionez, informazio publikorako irispidea izatearekin lotutako erreklamazioak izapidetzeko buruz edo, hala badagokio, erreklamazio horietan bitartekaritza-prozedurak kudeatzeko buruz.
- Eta, bestetik, informazioaren kanpoko kanalaren bidez komunikazioak izapidetzeko eginkizunei eta ustelkeriaren aurkako borrokaren esparruan arau-hausteen berri ematen duten pertsonak babesteko eginkizunei dagokienez (otsailaren 20ko 2/2023 Legeak –Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoak– ezartzen ditu eginkizun horiek), zehatzeko ahalmena. Esparru horretan, Agintaritzak hau independentzia osoz

proiektatzen da EAEko erakunde-maila publiko guztietan eta sektore pribatuan jarduteko, jakinarazitako ez-betetzeak eta irregulartasunak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparrura mugatzen direnean.

Gardenaren estatutua dekretu bidez garatuko da (dekretu horretan Gardenaren egitura, antolaketa eta funtzionamendua jasoko dira); halaber, funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideak izango ditu agintaritza horrek, baita funtzionarioak ere.

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak erakundearteko kontseilu aholku-emaile bat izango du, kanpoko adituak ere izango dituen, eta Legebiltzarraren kontrolpean egongo da.

Euskadiko Gardentasunaren Legearen aurreproiektuak, azken batean, herritarrekiko konpromisorako beste baliabide bat izateko jomuga du, politika publikoen efikazia eta efizientzia hobetuko dituen, eta horrek inpaktua izango du gizarte-garapenean, gure herrialdearen hazkunde ekonomikoan eta, azken batean, herritarren ongizatean.

LEGE-AURREPROIEKTUAREN ESKEMA

- Azalpen-zatia
- I. TITULUA. Xedapen orokorrak
 - 1. artikulua. Xedea
 - 2. artikulua. Helburuak
 - 3. artikulua. Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipio orokorrak
 - 4. artikulua. Definizioak
 - 5. artikulua. Gardentasun-konpromiso orokorrak
 - 6. artikulua. Herritarrek gardentasunaren arloan dituzten eskubideak eta betebeharrak
 - 7. artikulua. Datu pertsonalak babestea
 - 8. artikulua. Gardentasun-arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala
 - 9. artikulua. Arau-hausteen gaineko informazioa ematen duten pertsonen babesari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala
- II. TITULUA. Jarduera publikoaren gardentasuna
 - o I. kapitulua– Publizitate aktiboa
 - 10. artikulua. Publizitate aktiboaren printzipio gidariak
 - 11. artikulua. Publizitate aktiboaren arloko betebeharrak
 - 12. artikulua. Publizitate aktiboko betebeharren betetze-kontrola
 - 13. artikulua. Gardentasun-ataria
 - 14. artikulua. Publizitateari loturiko informazioa
 - 15. artikulua. Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa
 - 16. artikulua. Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa
 - 17. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa
 - 18. artikulua. Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa

- 19. artikulua. Kontratuei buruzko informazioa
- 20. artikulua. Jarduera publikoari buruzko informazioa
- 21. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa
- 22. artikulua. Interes orokorreko informazioa
- 23. artikulua. Datuak berrerabiltzea eta irekitzea
- o II. kapitulua– Informazio publikorako irispidea
 - 24. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea
 - 25. artikulua. Informazio publikoa eskatzen duen pertsonaren eskubideak
 - 26. artikulua. Informazio publikora iristen diren pertsonen betebeharrak
 - 27. artikulua. Informazio publikorako irispide-modalitatea
 - 28. artikulua. Doakotasun-printzipioa eta kostuak
 - 29. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea mugatzea
 - 30. artikulua. Datu pertsonalak babestea
 - 31. artikulua. Iripide partziala
 - 32. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabideak izapidetu eta ebazteko organo eskudunak
 - 33. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko prozedura
 - 34. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea
 - 35. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ez onartzeko kausak
 - 36. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea izapidetzea
 - 37. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskabidea ebaztea
 - 38. artikulua. Informazioa irispidean jartzea eta ematea
 - 39. artikulua. Aurkaratze-prozedura
 - 40. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako aukerako erreklamazioa
 - 41. artikulua. Bitartekaritza-prozedura
- o III. kapitulua– Plangintza eta koordinazioa
 - 42. artikulua. Gardentasunaren arloko plangintza
 - 43. artikulua. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinazioa
- o IV. kapitulua– Zehapen-araubidea
 - 44. artikulua. Zehapen-araubidea
 - 45. artikulua. Erantzuleak
 - 46. artikulua. Gardentasunaren arloko arau-hausteak
 - 47. artikulua. Zehapenak
 - 48. artikulua. Prozedura
 - 49. artikulua. Zehatzeko ahala
- III. TITULUA. Gobernu-programa eta kontu-emate soziala
 - 50. artikulua. Gobernu-programa
 - 51. artikulua. Kontu-emate soziala
- IV. TITULUA. Herritarren parte-hartzea
 - o I. kapitulua– Herritarren parte-hartzea
 - 52. artikulua. Herritarren parte-hartzearen helburua eta artikulazioa

- 53. artikulua. Gobernu Irekiaren plataforma
- o II. kapitulua– Herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa
 - 54. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta elkarlanean jarduteko erregistroa
 - 55. artikulua. Parte-hartzea sustatzeko neurriak
 - 56. artikulua. Parte hartzeko prozedura eta tresnen berme eta eskubide komunak
 - 57. artikulua. Herritarren parte-hartzetik eta lankidetzatik kanpoko gaiak
 - 58. artikulua. Parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko txostena
- o III. kapitulua– Interes-taldeen erregistroa
 - 59. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko interes-taldeen erregistroa
 - 60. artikulua. Interes-taldeak
 - 61. artikulua. Erregistrotik kanpoko jarduerak eta entitateak
 - 62. artikulua. Inskripzioa
 - 63. artikulua. Erregistroaren edukia
 - 64. artikulua. Deklaratzaileen betebeharrak
 - 65. artikulua. Jokabide-kodearen gutxieneko edukia
 - 66. artikulua. Kontrola eta egiaztapena
 - 67. artikulua. Betetzen ez denean aplikatu behar diren neurriak
 - 68. artikulua. Erregistroaren atxikipen organikoa eta arauzko erregulazioa
- V. TITULUA. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza
 - 69. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sorrera
 - 70. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren izaera
 - 71. artikulua. Araubide juridikoa
 - 72. artikulua. Ekonomia- eta aurrekontu-araubidea
 - 73. artikulua. Langileen araubidea
 - 74. artikulua. Kontratazio-araubidea
 - 75. artikulua. Laguntza juridikoaren araubidea
 - 76. artikulua. Errekurtsoen araubidea
 - 77. artikulua. Zirkularrak eta gomendioak
 - 78. artikulua. Zehatzeko ahala.
 - 79. artikulua. Antolamendu-egitura
 - 80. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako Presidentetza
 - 81. artikulua. Presidentearen eginkizunak
 - 82. artikulua.- Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emailea
 - 83. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren urteko memoria
 - 84. artikulua. Kontrol parlamentarioa
 - 85. artikulua. Gardentasuna
- Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen jarduna ordezkatzeara
- Bigarren xedapen gehigarria. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziako langileen araubide juridikoa
- Hirugarren xedapen gehigarria. Arau-hausteei eta informatzaileen babesari buruzko informaziorako barne-sistemaren arduradunaren araubide juridikoa

- Laugarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako kide anitzeko organoaren sorrera
- Lehenengo xedapen iragankorra. Ebazteke dauden prozedurak
- Bigarren xedapen iragankorra. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziaren estatutua onartzea
- Azken xedapenetako lehenengoa. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren hasiera
- Azken xedapenetako bigarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatzea
- Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.

EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOAREN 179/2023 IRIZPENAREN BALORAZIOA

Aholku Batzorde Juridikoak lege-aurreproiektuaren azterketari hasiera eman dio adieraziz kontsulta publikoak ez duela barne hartu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauari –Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoari– eta otsailaren 20ko 2/2023 Legeari –Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzekoari– dagokien zatia, Batasuneko arau horren transposizioa ordenamendura egiten duena, eduki hori arau-inpaktuaren azterketaren memorian txertatzen baita lehen aldiz, eraketa-prozeduran. Geroko txertatze horrek honako hau zehaztu du: aurreproiektuaren alderdi horri buruzko kanpo-partaidetzarako irekiera ez da gauzatu hasieran onetsitako testu artikuludunari buruzko entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egin arte.

Hain zuzen ere, desoreka horren arrazoia zera da, eremu espezifiko horren erregulazio positiboa ez dela sartu ordenamenduan 2/2023 Legea indarrean egon arte (lege-aurreproiektu hau egiteko prozedurari hasiera emateko kontsulta publikoa egin ondoren onetsi zen 2/2023 Legea), baina, halaz ere, beharrezkotzat jo zen lege-xedapen hori eta haren oinarrizko izaera Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan arabera aztertu ondoren aurreproiektu honen testuan sartzea.

Aholku Batzorde Juridikoak adierazi duenez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11.4 artikuluan onartu egiten bada ere herritarren parte-hartzeari dagokion betebeharra instrukzio-fasean aurreikusitako jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidean zehar egin daitekeela, berariaz adierazten da hori jasota utzi behar dela memorietan.

Ohar horri erreparatuta, eta lege-aurreproiektuaren gorputzean txertatutako gai hori herritarren parte-hartzearen esku jartzearen atzerapenak ekarri duen unean uneko motibazioa berretsiz, inguruabar hori berariaz aipatzen da memoria honetan.

Ondoren, lege-aurreproiektua eratzeke prozedurari buruzko irizpenaren kapituluari, Aholku Batzorde Juridikoak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako txostenaren berri emanez, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren tipologiari buruzko gogoeta zehatz bat egiten du lehenik eta behin; bigarrenik, aurreproiektua eratzeke prozedurari buruzko gogoeta bat

gauzatzen da eta, azkenik, kide anitzeko organoak sortzeko behar diren eskakizun orokorrei buruzko hausnarketa bat.

Lehenik eta behin, aurreproiektuan jasotako Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren tipologiari dagokionez (geroago haren konfigurazio juridikoari buruzko irizpenaren apartatuan errepikatu den alderdia), Aholku Batzorde Juridikoak honako hau uste du: «Posible da Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza administrazio independente gisa sortzea, nortasun juridiko propioarekin eta organo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo partzuergo baten itxura hartu gabe» (544), lege-aurreproiektuaren 69. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, arau-proiektuaren lege-maila dela-eta juridikoki posible baita aukera hori, 182/2022 irizpenean defendatutako argudioa osorik berretsiz.

Bigarrenik, aurreproiektua egiteko garatutako prozeduraren balorazioan, irizpenean honako hau adierazten da: «Tipologiari buruz ateratako ondorioak ez du esan nahi Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bestelako entitate batzuk sortzeko prozesua –arestian aipatutako SPKLren 10. artikuluan ezarritakoa– betetzetik salbuetsita geratzea» (97), eta behin eta berriz arrazoitu da hori 545. apartatuan.

Bat gatz irizpen honetan (98) adierazitakoarekin, honi dagokionez: Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen xedapen horretan jasotako araubidearen jomuga zera da, entitate berriak sortzeko erabakiaren aurretik –eta garrantzi instituzionala handitze aldera– antolaketa-aukeraren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzeko *ad hoc* gogoeta-prozesu bat egon dadin bermatzea, eta alderdi horiek benetan eta behar bezala haztatzen direla jasota geratzen da nola izapidetze-espeditetean hala lege-aurreproiektuaren testuan bertan. Horrela, aurreproiektuak hainbat aldiz jasotzen ditu Euskal Sektore Publikoari buruzko Legearen 10. artikulua 3. apartatuan helburu horrekin lotutako oinarritzko alderdiak, eta memoria ekonomikoan, berriz, horren sorreraren eraginaren oinarritzko alderdiak aztertzen dira; haatik, xehetasun gehiago eman behar dira estatutuak antolaketa-egitura ezartzen duenean, Gobernu Kontseiluari baitagokio antolaketa-egitura hartzeko eginkizuna, dagokion dekretuaren bidez.

Alabaina, ez gatz bat 3/2022 Legearen 43. artikuluan eskatutako betekizunak kasu honetan nahitaez aplikatzera daraman ondorioarekin.

Hala, xedapen hori aplikatu beharra aipatu aurretik, irizpenak berak onartu egiten du Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza «administrazio independente gisa eratzea, SPKLren 10. artikulua irekitzen duen entitate-tipologia alde batera utzita», eta lege honetan taxututako eskematik aldentzen da, lehen aipatutako irizpenean, 182/2022 Irizpenean, aztertzen den kasuan berariaz aipatzen den bezala.

Beraz, ezin zaizkio aplikatu kasuari 3/2022 Legearen III. tituluan –Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaerari buruzkoan– jasotako xedapenak. II. tituluaren arabera, honako hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren administrazio instituzionala –organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko ente publikoak– (8. artikulua), entitate instrumentalak –sozietate publikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoak– (9. artikulua) eta 10. artikuluan jasotako administrazio independenteak.

Azkenik, kide anitzeko organoak sortzeko behar diren eskakizun orokorrak betetzeari dagokionez –zehazki, organo horien beharra arrazoitzeko alderdiei eta esleitutako funtzioetan bikoiztasunik ez egoteari dagokienez–, irizpenak adierazten du arriskua dagoela eginkizunak nahasteko indarreko hainbat organorekin –erregelamenduzko xedapenen bidez sortutakoekin–, eta horrek iradokitzen du alde aurretik egiaztatu beharko litzatekeela ez dagoela eginkizun-nahasketarik halako organoekin.

Alde batera utzita aurreproiektu honen arau-maila aipatutako organismoak sortzeko erregelamendu-xedapenekiko arras desberdina dela, zeinek anomalia hori juridikoki konponduko bailukete printzipioz, komeniko litzateke aurreproiektuaren testuan xedapen espezifiko bat jasotzea, eta Jaurlaritzari ezartzea, lege-aurreproiektuaren 43. artikuluan jasotako organismo hori benetan sortzeko, lehendik dauden organoen antolamenduari eta egokitzapenari buruzko irizpide horren arabera berrikuspen puntual eta aurretiazkoa, nahasmen hori berariaz alde batera uzteko. Horretarako, xedapen gehigarri berri bat eransten zaio testuari, behean zehaztutako idazkerarekin.

Laugarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako kide anitzeko organoaren sorrera

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza jardunean hasitakoan, eta gardentasunaren arloko sailarteko koordinaziorako den eta lege honen 43. artikuluan adierazita dagoen kide anitzeko organoa sortu aurretik, gobernuak berak egokituko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan dauden kide anitzeko gainerako organoak, aipatutako xedapeneko atazak funtzionalki bateratzeko.

Bestalde, lege-aurreproiektuaren I. tituluari dagozkion artikuluei buruzko oharren apartatuan, 7. artikuluan idazkeran bi aldaketa egitea proposatu du, egokitze jotzen direnak. Hala, alde batetik, 223. apartatuan iradokitzen du 7. artikuluko 1. apartatuaren a) letran jasotako «datuen proportzionaltasunaren» printzipioaren ordezkari «datu pertsonalen minimizazioari buruzko printzipioa» aipatzea, testua 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5.1.c) artikuluan adierazitakora egokituta; artikuluko horren arabera, aproposak, egokiak eta mugatuak izan behar dute tratamenduaren helburuei dagokienez.

Bestalde, 7. artikuluko 1.e) eta 2. apartatuetan («Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren» datuak babesteko ordezkaria aipatzen da hor espezifikoki) eta 7. artikuluko horretako 5. apartatuko bigarren paragrafoan adierazitakoarekin (datuak babesteko ordezkariari buruzko erreferentzia orokorra da hor) bat ez datorrela argitzea iradokitzen du, «baldin eta entitateak halakorik badauka aplikatu beharreko arauen arabera». Ohar hori kontuan hartuta, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren» aipamen okerrak ezabatu dira, eta aipatutako testua aldatu da, eta, ondorioz, honela idatzita geratu da:

7. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Izaera eta helburua kontuan hartuta, informazio publikoa prestatzeko, eta informazio hori eman edo argitaratu aurretik, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Datuak babesteko printzipioak bete behar dira, datu pertsonalen tratamenduaren proportzionaltasunari **minimizazioari** eta gordetzeko epea mugatzeari buruzkoak bereziki.

e) Datu pertsonalen babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin behar da eta, hala badagokio, txosten bat eskatu behar zaio ~~Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren~~ **dagokion entitateko** datuak babesteko ordezkariari, baldin eta datuen tratamendua datu-kategoria berezei, adingabeei, genero-indarkeriaren biktimei, gizarte-bazterketako egoeran edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen eta kasu parekagarriei buruzkoa bada, bai eta segurtasun pertsonalerako arriskuak dakartzaten kasuetan ere.

2. Gardentasun-atarian, datuen babesari buruzko informazioa ageriko apartatu batean eman behar da, eta han, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: atari horretako datuak babesteko politika; ~~Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren~~ datuak babesteko ordezkariaren eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren harremanetarako datuak, eta datuen babesari buruzko araudiak dakartzan eskubideak baliatzeko prozedurak, bereziki, datuak ezerezteko eskubidea edo ahaztua izateko eskubidea.

Aurreproiektuaren 7. artikuluko honetan bertan, eta oraingoan Irizpenaren 628. apartatuan jasotako iradokizuna kontuan hartuta, adierazitako Erregelamendua osorik aipatuz gero, haren 4. apartatuaren testua aldatu eta honela idatzita geratu da:

4. Datu pertsonalen tratamenduak datuok Interneten argitaratzea badakar, alde aurretik tratamenduaren arduradunak txosten arrazoitu bat egin beharko du; txosten horretan utzi beharko da jasota zer haztapen egin den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarritako printzipioen arabera –2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen baitu (Datuak babesteko erregelamendu orokorra)–. Txosten hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta horrelako haztapen-tratamenduetarako pribatutasun-politika espezifiko bat onartu bada eta haztapen horretarako irispidea badago entitatearen egoitza elektronikoan.

Aholku Batzorde Juridikoak egindako oharra kontuan hartuta, egokitzen jotzen da aurreproiektuaren 8. artikuluko 4. apartatua aldatzea, proposatutako moduan; alde batetik, lehen paragrafoa eta c) apartatua kentzea, eta, bestetik, f) apartatua ezabatzea (5. apartatua izango da aurrerantzean).

Hala, honela idatzita geratuko dira 8. artikuluko 4. eta 5. apartatuak:

8. artikulua. Gardentasun-arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala

4. Aurreko apartatuetako subjektuek ez ezik, honako hauek ere izango dute lege honetan ezarritako publikitate aktiboaren ~~araberako gardentasun-betebeharra~~ **betebeharra**:

c) Itunpeko ikastetxe eta osasun-zentroek, **bai eta gizarte-zerbitzuen arloko itunpeko zentroek ere.**

~~f) Artikulu honetan adierazitako subjektu publikoen kontura edo izenean zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala baliatzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak, zeini lagundu beharko baitzaie, aldez aurretiko errekerimendurik eginda, lege hau betetzeko behar den informazio guztia emateko xedez. Kontratu publikoen esleipendunek ere izango dute betebehar hori, dagokien kontratuan adierazitakoaren arabera.~~

5. Artikulu honetan adierazitako subjektu publikoen kontura edo izenean zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahala baliatzen duten pertsona fisiko edo juridiko ~~guztiak, zeini lagundu beharko baitzaie,~~ **guztiek subjektu horiei lagundu beharko diete**, aldez aurretiko errekerimendurik eginda, lege hau betetzeko behar den informazio guztia emateko xedez. Kontratu publikoen esleipendunek ere izango dute betebehar hori, dagokien kontratuan adierazitakoaren arabera.

Aurreproiektuaren 21. artikuluan jasotako muga –ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioaren arloko publikitate aktiboa soil-soilik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikora mugatuta egotea– kentzeko iradokizuna hartu da kontuan, betebehar hori subjektu publiko guztietara hedatzen dela uste baita, 22. eta 23. artikuluetan jasotako gaiei dagokienez adierazitakoaren aurka, kontuan izanik horiei dagokienez egokia dirudiela Autonomia Erkidegoko sektore publikora mugatuta kokatzea.

Hala, honela geratzen da idatzita 21. artikulua:

21. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa

~~Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, bera osatzen duten entitate guztiei dagokienez, horiei~~ **Lege honek xedatutakoaren arabera, gardentasun-printzipioan oinarrituta, informazioa ematera behartuta dauden subjektu publikoek** beren entitate guztien aurrekontuei buruzko informazio hau guztia emango dute jakitera, aplikatu behar zaizkien aurrekontu-araudiarekin eta kontrol- eta kontabilitate-araudiarekin bat etorritik: aurrekontu-partida nagusien deskribapena eta haien gauzatzeari eta likidazioari buruzko informazio ulergarri eguneratua, zorpetze-maila, aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuen betetze-maila, finantza- eta ondare-egoera adierazten duten aldagaiak, eman beharreko urteko kontuak, kanpoko kontrol-organoek egindako kontu-ikuskaritza eta fiskalizazioen txostenak.

Aldatu egiten da aurreproiektuaren 31. artikulua testua, eta haren 2. apartatua ezabatu egiten da, datuen babesari buruzko araua baita, eta ez horietarako irispide partzialari buruzkoa. Ezabatutako apartatu hori 30. artikulua 5. apartatu berria izatera aldatzen da.

Horrenbestez, honela geratzen dira idatzita bi artikuluko horiek:

30. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Hirugarrenen datu pertsonalak dauzkan informazio publikora iristeko eskabideak ebazteko, datu pertsonalen babesari buruzko arauetan xedatutakoa bete beharko da.

2. Informazio publikora iristeko eskabideak ukatu egingo dira, baldin eta lortu nahi den informazioak bereziki babestutako datu pertsonalak badauzka, hala nola ideologiari, sindikatu-afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, jatorriari, osasunari eta bizitza eta orientazio sexualari buruzko datuak eta datu biometrikoak edo genetikoak, eta, hala badagokio, arau-hausleari ohartarazpen publikoa egitea ez dakarten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak ere, salbu eta ukitutako pertsonak espresuki onartzen badu eskabidearekin batera aurkeztu behar den idazki baten bidez.

3. Informazio publikora iristeko eskabidearen xedeak lotura zuzena badu dagokion entitate publikoaren antolamenduekin, funtzionamenduekin edo jarduera publikoarekin, eta hango datu pertsonalak identifikazio-datuak baino ez badira, baimena emango da informazio hori irispidean izateko, salbu eta, kasu jakin horretan, dibulgazioaren interes publikoaren gainetik gailendu behar bada datu pertsonalen babesa edo Konstituzioak babestutako beste eskubide batzuk.

4. Nolanahi ere, ez da irispiderik emango, inguruabar bereziak daudela iritziz gero, hau da, datu pertsonalen babesa informazio-dibulgazioaren interes publikoaren gainetik badago edo ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudia gordetzeko eskubidea zaindu behar bada.

5. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ezin izango da ukatu edo mugatu, baldin eta irispidea ematen bada datu pertsonalak bereizi ondoren, halakorik egonez gero, eta, modu horretan, ukitutako pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

31. artikulua. Irispide partziala

Eskatutako informazioaren zati bat aurreko artikuluetan zerrendatutako mugaren baten eraginpean badago, ahal dela, irispide partziala emango da; horretarako, ez da jarriko mugen eraginpeko zatia, salbu eta horrek informazio distortsionatua, nahasgarria edo zentzugabea eragiten badu. Horrelako kasuetan, eskatzaileari adieraziko zaio informazioaren zer zati utzi den eman gabe.

~~*2. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea ezin izango da ukatu edo mugatu, baldin eta irispidea ematen bada datu pertsonalak bereizi ondoren, halakorik egonez gero, eta, modu horretan, ukitutako pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.*~~

Irispide-eskabideak izapidetzeko eta ebazteko eta publizitate aktiboko betebeharrak betetzeko subjektu eskudunak zehazteari dagokionez, egokia dirudi Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean jasotako iradokizuna baiestea, informazio hori instituzio- eta antolamendu-informazioan txertatu beharreko publizitate aktiboaren parte izan dadin, eta, ondorioz, alderdi hori lege-aurreproiektuaren 15. artikulua 1. apartatuan gehitzea; ondorioz, honela geratuko da idatzita arestian adierazitako apartatua:

15. artikulua. Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa

*1. Lege honen arabera informazioa ematera behartuta dauden subjektuek gai hauei buruzko informazioa argitaratuko dute: zer-nolako eginkizunak betetzen dituzten eta zer araudi aplikatzen zaien; batez ere, estatutuak eta antolaketa-arauak, egoitzen kokapen fisikoa, bai eta jendearentzako ordutegia ere, eta, hala badagokio, arreta emateko eta izapideak egiteko bide elektronikoak. **Berariaz argitaratuko dute erakundean bertan publizitate aktiboaren eta pasiboaren betebeharrak betetzeko eskumena duen organoari edo ardura duten pertsonen buruzko informazioa.***

Lege-aurreproiektuaren testuaren artikuluen azterketari buruzko kapituluko F apartatua (azken zatia), Aholku Batzorde Juridikoak hiru ohar egin ditu, eta horien edukia berariaz aipatu behar da memoria honetan.

Lehenik eta behin, eta entitate sortu berriak martxan jartzearen antzeko aurrekari jarraikiz, 132/2021 Irizpenean berariaz aipatutakoari dagokionez, iradokitzen du komeni dela lege-aurreproiektuaren testuan berariaz adieraztea Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzak noiz hasiko dituen bere jarduerak.

Hala, araudi autonomiko orokorrak gai horri buruzko berariazko aipamenik egiten ez duenez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 93.3 artikulua xedatzen duenari jarraikiz, komenigarria dirudi testuari azken xedapen berri bat eranstea, Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jarduerak abian jartzeko edo hasteko data haren estatutua onesteko dekretuan ezarriko dela zehazteko, barne-kudeaketako organoak eratze eta haren jarduerarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitze aldera.

Ondorioz, aurreproiektuaren testuari azken xedapenetako lehenaren idazkera berria gehitzen zaio, eta, ondorioz, azken xedapena –hura indarrean jartzeari buruzkoa– berriz zenbakitzen da, testu honekin:

Azken xedapenetako lehenengoa. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren jardunaren hasiera

Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutua onartzen duen dekretuak adieraziko du noiz hasiko den jardunean.

Bigarrenik, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2017 Legearen aldaketari dagokionez (aldaketa hori otsailaren 20ko 2/2023 Legearen azken xedapenetako hirugarrenak sartu zuen), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan ezarritakoa oinarri hartuta lehiaren balizko arau-hausteetarako kanpo-kanal espezifiko bat sortzen du Aholku Batzorde Juridikoak, irizpenaren 611. apartatuan, lege-aurreproiektu honen bidez Lehiaren Euskal Agintaritzan «kanpoko kanal espezifikoa» sortzeko iradokitzen du, kanal espezifiko hori berariaz sortzeak autonomia-erkidegoko erregulazioaren esparru juridikoari segurtasun handiagoa emango liokeela iritzita.

Gai hori beren-beregi iradoki du Lehiaren Euskal Agintaritzak lege-aurreproiektu hau eratzeko prozedurari helarazitako txostenean, baina ez zen jaso bere garaian Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen aldaketa puntual eta espezifiko batean kokatu beharko litzatekeen arau-jardueratzat jotzen zelako.

Alabaina, eta Aholku Batzorde Juridikoak egindako iradokizuna aintzat hartuta, lege-aurreproiektuaren testuan azken xedapenetako bigarrena sartu da, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatuta, Lehiaren Euskal Agintaritzaren esparruan kanpoko kanal espezifiko bat sortuz, ondoren adierazitako testuarekin.

Azken xedapenetako bigarrena. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatzea

Zazpigarren xedapen gehigarri bat eransten zaio Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legeari, honela idatzita:

Zazpigarren xedapen gehigarria. Lehiaren arloko arau-hauste posibleak komunikatzeko kanpoko kanalaren sorrera.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren kanpoko komunikazio-kanala sortzen da, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2017 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrenik, Aholku Batzorde Juridikoak 176/2023 Irizpenaren 613. apartatuan adierazten du agintaritza independenteek nahitaez izendatu behar dutela datuak babesteko ordezkari bat, Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 32. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Horrenbestez, ohar hori kontuan hartuta, aldatu egin da lege-aurreproiektuaren 79. artikulua –Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren antolamendu-egiturari buruzkoa–, eta 3. apartatu berri bat gehitu zaio; datuak babesteko ordezkari bat izendatu behar dela jasotzen da apartatu horretan.

Horrenbestez, aurreproiektuaren 79. artikulua testu hau izango du:

79. artikulua. Antolamendu-egitura

1.– Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren antolamendu-egitura estatutuan ezarriko da; hain zuzen, presidentetza bat eta haren mendeko bi dibisio izango ditu. Dibisio horiek berariazko jarduna izango dute. Hain zuzen ere, bata kanpoko informazio-kanalaren bidezko komunikazioak izapidetzeko eta ustelkeriaren aurkako borrokaren esparruan arau-hausteen informatzaileak babesteko eginkizunak izango ditu; bestea, berriz, administrazio publikoen gardentasunari loturiko eginkizunak izango ditu.

2. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren administrazio-unitateak eta barne-funtzionamendua antolatze araubideak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren estatutuan xedatutakoa bete beharko du.

3. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren barruan, datuak babesteko ordezkari bat izendatuko da, artikulua hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 37.1.a) artikulua –2016/679 Erregelamendua (EB), 2026ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra)–, eta Arau-hausteen informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatze otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 34. artikulua.

Azkenik, irizpenaren azken hogeita hamabi apartatuek legegintza-teknikako hainbat ohar egiten dituzte, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak eratzeko jarraibideetan oinarrituta. Jarraibide horiek 2023ko uztailaren 11ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu ziren, eta ia guztiak lege-aurreproiektuaren testuan txertatzen dira, egokitzen jotzen direlako eta lege-aurreproiektuaren hobekuntza eraginkorra dakartelako.

Haatik, ohar horietako batzuk ez dira sartu, praktikoak ez direla uste baita; halakoak lirateke, adibidez, gardentasunaren arloan egindako jarduketaren publikoaren deskribapen kronologikoa testuan sartzeko planteamenduari buruzkoak eta testuan Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duen ekainaren 13ko 89/2023 Dekretua onartu duela aipatzekoa.

Ilido beretik, testu hau eratzeko prozesuan zehar hainbat eragilek egindako antzeko planteamenduen aurrean jada azaldu den bezala, ez da ikusten lege-aurreproiektuaren izenburua aldatu eta salatzaileak babesteko kanpoko kanalaren erregulazioaren inguruko aipamena gehitzeko aukerarik; izan ere, aldaketa hori ez litzateke onuragarria izango izenburua behar bezala ulertzeko eta publikoki zabaltzeko.

Aholku Batzorde Juridikoak berretsi egiten du beste instantzia batzuek prozedura honetan jada formulatu duten planteamendua, lege-aurreproiektuaren testuaren 9. artikulua idatzera aldatzekoa, hain justu, arau-hausteen gaineko informazioa ematen duten pertsonen babesari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko arauen aplikazio-eremu material eta pertsonalari buruzkoa. Artikulu horren testua mantentzea erabaki da, kontuan hartuta testu hori, aurreko zortzigarren artikulua testuarekin batera, behar-beharrezkoa dela nola lege-aurreproiektuaren funtsezko edukiaren hala hura sortzen duen erakundearen –Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren– jarduketa-esparruaren zehaztapenerako eta irismenerako, honako hauei dagozkien esparru materialetan: gardentasuna, arau-hausteen berri ematen duten pertsonen babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka.

Memoria laburrean aurkeztutako alderdiak zehatz-mehatz aztertu eta lege-proiektuaren testua behin betiko idatzi ondoren, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 24. eta 27. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseilura bidali da, hark onetsi dezan.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Miren Martiarena Barkaiztegi

Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaria